



7. ZERBITZU PUBLIKOEN ETA JARDUEREN TASAK ARAUTZEKO ORDENANTZA

I. XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua

Udal honek Lurralde Historikoaren Tokiko Ogasunak arautzeko 9/2005 Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera ezarriko du zerbitzu publikoen eta jardueren tasak, eta halaxe eskatuko ditu, ordenantza honekin bat (bertan jasotzen da tasa horiek dakartzan eranskina).

2. artikulua

Udal-barruti osoan aplikatuko da ordenantza hau.

II. IZAERA ETA EGITATE ZERGAGARRIA.

3. artikulua

Egitate zergagarria da Zuzenbide Publikoko araubidean zerbitzuak ematea eta jarduerak egitea, bereziki zergadunari dagozkionak, baldin eta zerbitzuak edo jarduerak ez badira zergadunek borondatez eskatu edo jaso dituztenak, eta ez badira sektore pribatuan ematen edo egiten. Hori guztia, 9/2005 Foru Arauko 21. artikuluan ezarritakoarekin bat.

III. SUBJEKTU PASIBOA.

4. artikulua

1. Pertsona fisikoak nahiz juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikuluan aipatutako erakundeak dira zerga honen subjektu pasibo zergadunak, betiere, Durangoko Udalak eskaintzen edo antolatzen dituen zerbitzuak edo jarduerak eskatu badituzte edo horietatik onurak edo eraginak jasotzen badituzte. Zerbitzu eta jarduera horiek ordenantza honetan daude jasota.
2. Hauek izango dira zergadunaren ordezkioak:
 - a) Etxebizitzan edo lokalen okupatzaileek zerbitzuetatik edo jardueretatik onurak edo eraginak jasotzen dituztenean, jarduera edo zerbitzu horien tasetan, higiezin horietako jabeak zergadun-ordezkoak izango dira, eta, horrenbestez, kasu bada, onuradunen kuoten ardura hartuko dute.
 - b) Suhiltzaile zerbitzuengatik, aurrien prebentzioagatik, eraikuntza eta eraispin zerbitzuengatik, salbamendukoengatik eta, oro har, pertsona eta ondasunak babesteko zerbitzuengatik ezarritako tasetan, zerbitzuaren mantentzea barne, arriskuaren entitate edo sozietate aseguratzaileak.
 - c) Lurzoruari eta hiri antolaketari buruzko araudian jasotako hirigintza lizentziak emateagatik ezarritako tasetan, obren eraikitzaileak eta kontratistak.

5. artikulua

Honako hauek ordaindu behar dituzte tasak:

1. Banakoen eskariz gauzatutako zerbitzuetan edo jardueretan, eskatzaileek ordaindu beharko dituzte.
2. Zerbitzuak edo jarduerak banakoek eskatu gabe baina euren ekintzen edo omisioen eraginez gauzatu badira, ekintza edo omisio horien eragileek ordaindu beharko dituzte.

6. artikulua

Subjektu pasiboaz gain, tarifak ezartzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ere ordenantza honetatik sortutako zerga-zorrak ordaindu beharko dituzte.



IV. SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK.

7. artikulua

Zerga-arloan salbuespenak edo hobariak eskaintzeko, xedapen orokor aplikagarrietan ezarritakoa da.

V. OINARRI ZERGAGARRIA.

8. artikulua

Zerbitzua gauzatzen duten unitate guztiek osatzen dute oinarri zergagarria –horietako unitate bakoitzari dagokion moduan.

VI. KUOTA.

9. artikulua

Kuota finkatzeko, aurreko artikuluko oinarriari eranskinetan jasotako tarifetatik hari dagokiona aplikatuko zaio, horretara jarritako zenbateko finko bat, edo bi prozeduretatik ateratzen den zenbatekoa. Hau guztia, aplikazio arauetara jarraiki.

VII. SORTZAPENA.

10. artikulua

Zerbitzuaren prestazioa hastean edo jarduera gauzatzean sortzen dira tasak.

Zergadunari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik zerbitzu publikoa edo jarduera administratiboa ez bada ematen edo garatzen, dagokion zenbatekoa itzuliko da.

VIII. LIKIDAZIOA ETA DIRU-SARRERA.

11. artikulua

Kontzeptu bakoitzari dagokion likidazioa egingo du Udal-administrazioak, dagokion tarifen jasotako ordainarazpen bakoitzaren arauetara jarraituta.